

## ARTE MARRAZKETA II ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Belen Flamarique Orreaga Vazquez	Maila	2. Batxilergoa	Ikasturtea	2020/2021
-----------	-------------------------------------	-------	----------------	------------	-----------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK							
1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3		5	6	7	8
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6	7	8
4) Ikasten ikastea.	1	2	3	4	5	6	7	8
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2					7	8
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EDUKIAK

**1.Perspektiba koniko zehiarra eta itzaleztapena.** 16cm-ko ertz dun kubo marraztu eta dekorazioa diseinatu perspektiba konikoaren arabera marraztu eta argi-fokua zehaztu eta horren arabera itzaleztatu.

**2.Oinarrizko gorputz geometrikoen marrazketa eta itzaleztapena.**

Buruz eta bolumenaren ilusioa emateko teknikak erabiliz 2 gorputz geometriko kolore osagarritz marraztu eta itzaleztatu.

**3. Marrazki Zientifikoa eta Artistikoa.** Behaketa objetiboa landare baten marrazki oso zehatza.

**Subjektibotasunaren adierazpena.** Landarearen marrazki artistikoa.

**4. Behaketa objetiboa eta Teknikak.** Erretratoa koloretako arkatzez.

**5. Koloreen elkarreragina. Natura hilaren behaketa eta marrazketa.** BODEGOIA. Bi ontziko natura hila koloretako arkatzez. Kaxatzea.

**6. Giza irudiaren analisisa eta marrazketa. Marrazki akademikoa, kartulina beltzaren gainean, Diskoboloa.** Kaxatzea, anatomia, proportzionaltasuneko erlazioak, kanona. Itzaleztapena.

**7. Giza irudiaren eta argiaren analisisa, Lerro sentibera eta orbainaren espresakortasuna. Teknika lehorrak eta hezeak.** *Anatomia. Proportzionaltasuneko erlazioak. Giza irudiaren mugimenduaren azterketa.* Argi-ilunaren errepresentazioa eta analisisa.

**8. Sormen Prozesua, plangintza, esperimendazioa eta zirriborroen garrantzia artelanaren garapenean.** Teknika berriak eta tradizionalak, baliabide teknologikoen aplikazioa.

**Teknika mistoak** azken lan batean ikasturte osoko laburpen gisa. Sinbolismoa, figurazioa, abstrakzioa.

## EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
<p><b>1. Perspektiba koniko zehiarra eta itzaleztapena.</b> Kubo dekoratuaren marrazketa eta itzaleztapena. (10 ordu)</p> <p><b>2. Oinarritzko gorputz geometrikoen marrazketa eta itzaleztapena.</b> Buruz eta bolumenaren ilusioa emateko teknikak erabiliz 2 gorputz geometriko kolore osagarritz marraztu eta itzaleztatu. (6 ordu)</p> <p><b>3. Marrazki Zientifikoa eta Artistikoa.</b> Behaketa objetiboa landare baten marrazki oso zehatza. (6 ordu) <b>Subjektibotasunaren adierazpena</b> Landarearen marrazki artistikoa. (3 ordu)</p>	<p><b>4. Behaketa objetiboa eta Teknikak</b> Erretratoa koloretako arkatzez. (8 ordu gelan eta gehiago etxean)</p> <p><b>5. Koloreen elkarreragina. Natura hilaren behaketa eta marrazketa.</b> BODEGOIA. Bi ontziko natura hila koloretako arkatzez. Kaxatzea. (6 ordu)</p> <p><b>6. Giza irudiaren analisisa eta marrazketa.</b> <b>Aulki dorrea,</b> Betty Edwards-en metodoari jarraituz hutsuneak soilik marraztuz, estereotipoak baztertzeko. (saio bat) <b>Marrazki akademikoa, kartulina beltzaren gainean, Diskoboloa.</b> Kaxatzea, anatomia, proportzionaltasuneko erlazioak, kanona. Itzaleztapena. (9 ordu)</p>	<p><b>7. Giza irudiaren eta argiaren analisisa, Teknika lehorrak eta hezeak.</b> Naturaletiko apunteak, argi-iluna. Tenpera zuriaz kartulina beltzaren gainean (3 ordu) <b>Lerro sentibera eta orbainaren espresakortasuna.</b> <i>Anatomia. Proportzionaltasuneko erlazioak.</i> <i>Giza irudiaren mugimenduaren azterketa</i> Norbere oinak ikatz-ziriz eta tintaz (3 ordu) Giza irudia gorputz osoa 50x70 tamainan, ikatz-ziriz eta tintaz. Argi-ilunaren errepresentazioa eta analisisa (9 ordu)</p> <p><b>8. Sormen Prozesua, plangintza, esperimendazioa eta zirriborroen garrantzia artelanaren garapenean.</b> Teknika berriak eta tradizionalak, baliabide teknologikoen aplikazioa. <b>Teknika mistoak</b> azken lan batean ikasturte osoko laburpen gisa. Sinbolismoa, figurazioa, abstrakzioa. (11 ordu)</p>

## METODOLOGIA

Ariketa bakoitza hasi aurretik azalpen teoriko labur bat egiten da, garaiezberdineko artelanekin erlazionatuz, aurreko urteetan egindako lanak erakutsiz eta komentatuz. Helburua eta zuzenketa irizpideak zehaztuko ditugu. Ondoren klasean azaldutakoa ikasgaiaren ikasgela birtualean ikusgai egongo da ikasleek edozein momentutan ikusi ahal izateko. Batzuetan ere, lagungarriak izan daitezkeen bideoak edo aurkezpenak aurretik etxean ikustea eskatu ahal zaie.

**Generoaren ikuspuntua** oso kontuan hartuko dugu, bai gelako espazioaren erabileran, taldeko giroan eta ariketa guztien aurkezpenetan adibideak aurkezterakoan emakumezkoen arte lanak plazaratuz eta ezagut araziz.

## BALIABIDEAK

Azalpenak hornitzeko proiektzioez eta material inprimatuaz baliatzen gara.	Lanak egiteko norik bere materiala ekarri behar du, arkatzak, konpasa, erregelak, koloreak, pintzelak, zapiak, flaskoak e.a.
Papera, ikasi edo egin beharreko ariketen fotokopiak.	Gelan zenbait material izanen dugu: tinta, estraza papera, nogalina...

## EBALUAZIO SISTEMA

- Ebaluazio bakoitzean azterketa bat egongo da eta honen balioa ariketa baten berdina izango da.
- Nahikotasunean 3. ebaluaketan azterketa bat eginen dute eta ikasturte osoko lan praktikoen % 40 balioko du.
- Lanak emateko atzerapenak penalizatuko dira:
  - Egun bakoitzeko atzerapenak 0,5 puntu gutxiago suposatuko du.
  - 6. saiotik aurrera ez dugu lanik zuzenduko, zuzenean berreskurapenaren trataera emango zaio gehienezko nota 5 izanez.
- **Gelako denboraren aprobeitxamendua:** Ezinbestekoa iruditzen zaigunez, egunero kontrol bat eramango da, irakasleak baloratuko du ordu horretan egindako lana, garapena, nahikoa izan den ala ez eta ariketaren kalifikazio irizpideetan %20 suposatuko du.
- Ebaluaketa bakoitzean egindako ariketen balio ezberdina izanen da, zailtasuna, garrantzia eta egokitutako ordu kopuruaren arabera. Jarrerari dagokionez %10 suposatu dezake (%100etik deskontatzeko soilik edota nota borobiltzeko)
  - Jarrera ona suposatzen zaie, baina horrela ez bada ebaluazioko notaren %10eko jaitziera ekarri dezake. Jarreraren barnean, jokaera baikorra, irakaslearen azalpenen aurrean arreta edukitzea, etengabeko garapena, ardura, lana (denborarik ez galtzea), materiala, puntualtasuna, garbitasuna, bertzeekiko begirunea...
- Eskola orduen % 20an huts egiteak Marrazketa Artistikoa suspenditzea ekar dezake, nahiz eta asistentzia-hutsegiteak justifikatuak izan.

## BERRESKURAPEN SISTEMA

- Ariketak 4 baino nota baxuagoarekin suspendituz gero edota batzbestekoak ez badio ematen, lanak errepikatu/hobetu egin behar izanen ditu.
- Ohiko deialdiko nota globala, hiru ebaluazioen kalifikazioen batz bestekoa izango da. Ebaluazio bakoitzean 4 bat lortu beharko da batz bestekoa egin ahal izateko. Horrela ez bada suspenditutako lanak errepikatu eta hobetu behar izanen ditu eta horretaz **gain nahikotasuna edota ez ohiko azterketa ere egin behar izanen ditu**. Azterketa egitea ez da nahikoa izango kurtsoa gainditzeko, azterketak %40a balioko du eta lanek %60.
- Ebaluazioko notak buletinean agertzen den nota borobiltzeko irizpideak: ariketa guztiak eginda badituzue, 0,65tik gorako nota denean, hurrengo zenbaki osoa agertuko da buletinean, beti kontuan hartuta azken notaren balioa ateratzeko benetako nota dezimaldunak erabiliko direla.
- Azken nota borobiltzeko 0,5tik gora borobilduko dugu, beraz 5,4ko nota 5 bat litzateke eta 5,6koa 6. Gorantz borobiltzeko kontuan hartuko dugu ikaslearen garapena kurtsoan zehar, lana, jarrera, e.a.
- Ohiko deialdian ikasleren batek gaindituko ez balu, ez ohiko deialdirako egin beharko dituen lanen, ariketen eta azterketaren berri emanen zaio.

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar COVID 19K eragindako egoeraren arabera ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.